

265. ZENBAKIA-AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA-2023KO AZAROA

UZTARRRIA

GUKA




GHE GAITZA

PANDEMIA BATETIK BESTERA

www.urrategiinteriorismo.com
España Artea 9. floor Arreaga 27

PROIEKTUAK
OBRAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak

Cooking & Chef
SUKALDE GUNEA

www.milar.es
webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA
943-85 18 97

dyson v8 absolute
399 €



dyson cyclone v10 absolute
499 €
AZKEN ALEAK!



dyson v11 absolute
599 €
BERRIENA!



MILAR LARRAMENDIN
AURKI DITZAKEZU
DYSON PRODUKTUAK

Garaiko landareak

KIMUBAT
— GARDEN —



PENTSAMENDUA • ZIKLAMENA • BIOLA • AZALEA • CALLUNA ...

Lortu zure udazkeneko landareak gure gardenean! Urrestilla bidea • Azpeltia



www.kimubat.eus



UZTARRIA 265

2023-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANDONI ELDUAIEN.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Korapiloa Intza Trula, <i>Betikoak</i> . | 32 | Iritzia Nagore Aizbitarte, <i>Parlamentuaren itzalean</i> . |
| 6 | Hementxe bertan
Abdelkebir Agdid, marokoarra. | 33 | Lehiaketa |
| 8 | Nire leihotik Jon Olaizola, <i>Zirkunpolarra</i> . | 34 | Erretratua Patxi Juaristi, ingeniaria eta ilustratzailea. |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga, <i>"Eta argia egin zen"</i> , Txetxu Urbieto, <i>Koetxea</i> . | 38 | Plazan Bazan. |
| 12 | Erreportajea <i>Musika geneetan</i> . | 40 | Iritziak Miel A. Elustondo, <i>Migratzailearena</i> ; Sara Amenabar, <i>Kolpeak</i> . |
| 18 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Gutuna (II)</i> . | 42 | Erreportajea <i>Ganadua gaixo</i> , <i>jabeak larri</i> . |
| 19 | Guka gara! | | |
| 20 | Elkarriketa Inga Segurolo, Dislegi elkartearen Debabarreneko delegazioaren lehendakaria. | | |
| 24 | Guka <i>Jaso eta eman</i> , <i>borondate osoz</i> . | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarria.eus

Erredaktoreburua:

Nerea Uranga

Erredaktore taldea:

Maialen Etxaniz
Intza Trula
Ihintza Elustondo
Aritz Mutiozabal
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Iñaki Martínez Albizu

Publizitate arduraduna

Angel Sarasua

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak:

Leire Ibar
Jon Olaizola

Olatz Alkorta
Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbieto
Ione Gurrutxaga
Nagore Aizbitarte
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:





ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
belarrenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urtiarre 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
JONADENA

Lolola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikadnadenja.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

KIRURI



JATETXEA

Lolola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

Luba
ahalekialaritz

Analisiak
libroa
lehenak
bonitate

Gestioi lanak
Finan administrazioa
Gestio. imobiliaria

Tfno.: 943-157 329 Faxa: 943-157 329
Superan kalera: 49-4-1004300000000000



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

CITROËN **Aiertza Autoak**
Behar duzun konfiantzazkoak talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiertza@aiertzaautoak.com



Eurotaller EUROTALLER MULTIMARKA ZEPETZIA

adi **ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA**

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Antezka kalea, 3
943 81 29 08
www.adiarteeta@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

IKA **Instalakuntza Elektrikoak**
argi lanak s.l.

Urtel: 618 96 49 95 / Jor: 649 12 02 71
ikazantzia@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 **AZPEITIA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 **AZPEITIA** - Urtel.: 943 81 57 81

Errespetu kontua



INTZA TRULA

Ordue eta erdi. Ez gehiago ezta gutxiago ere. Ordue eta erdi eskas batekin nahikoa duzu tabernan lanean diharduen zerbitzari batek barraren beste aldetik jasan behar dituen gutxiespenez jabetzeko. "Ei ei, zu, hoge minutu daramatzat hemen norbaitek kasu egin zain, azkarragoak ezagutu ditut", esan dio orain dela bost segundo eskas heldu den agure batek langileari. "Bai, bi ordu daramatza kafe bat egiteko", jarraitu dio albokoak. Belarrietatik eta sudurretik kea ateratzen hasi zait ordurako.

Igandea da. Eguerdiko 12:00ak dira, eta zeruan ez da laino bat bera ere ageri. Egun bikaina buelta bat eman eta pare bat tragotxo hartzeko, ezta? Bada, dirudienetz batzuentzat hori ez da nahikoa. Igandea gehienontzat jaieguna izan arren, tabernarientzat asteko egun *potenteenetako* bat izan ohi da, eta gainontzekook gure kafea eta garagardo kopak izan ditzagun egiten dute lan. Haatik, badirudi batzuetan ahaztu egiten zaigula.

Gorago aipatu ditudan bi komentario horiek entzunda gogoratu naiz zergatik heldu nintzen ia zerbitzari lana gorrotatzera. Ikaslea nintzen garaian, diru apur bat irabazteko lauzpabost urte eman nituen tabernan lanean, eta hasieran horrela uste banuen ere, ogibide horren alderik zailena ez da besteek jai dutenean edo festa giroan daudenean lan egitea, baizik eta barraren beste aldean egoteagatik gehiago sentitzen diren eta zu gutxien zaituzten horiek aguantatu behar izatea.

Urte horietan zehar entzun ditudan komentarioekin liburu bat osatzeko bezainbeste material dudala esatera ausartuko nintzateke, beldurgarria badirudi ere. Norbaitek zalantzarik izango balu kasualitatez, horrelako jarreraren aurrean langileak isilik, "bezeroak beti baitu arrazoia". Hori horrela izanik, honakoa pentsatu dut nire baitan: ez dakit batzuetan ez ote dugun bi aldiz pentsatzen hitz egin aurretik, ala besterik gabe, munduak geure inguruan biratzen duela uste ote dugun. Kontua da, arrazoia bata edo bestea izan, ahaztu egiten zaigula askotan tabernari, garbitzaile, irakasle edo beste edozein lanbidek geureak adina errespetu merezi dutela.

Beraz, ez, ez daramatzazu bi ordu kafe baten zain. Ez dituzu azkarragoak ezagutu. Kafesne deskafeinatua eskatu eta ebakia ateratzeagatik ez dugu inor kondenatzeko eskubiderik. Nahastu egin da, besterik gabe, gu ere egunean hamar aldiz nahasten garen moduan. Oraintxe jaiki gara ohetik; berak, ordea, ziurrenik goizeko seietan hasi du eguna. Irribarre batekin, gainera. Ez dezagun ahaztu, langile guztiek –ogibidea edozein dela ere– errespetua merezi dutela. A! Eta ahaztu baino lehen: *mesedez eta eskerrik asko* hitzak doan dira, eta ziurrenik aurrean duzunak asko eskertuko dizu horiek erabiliz gero. ■■■

**EZ AHAZTU LANGILE
GUZTIEK, OGIBIDEA
EDOZEIN DELA ERE,
ERRESPETUA MEREZI
DUTELA**

Abdelkebir Agdid: "Lanak aukera eman dit harremanak egiteko"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **MAIALEN ETXANIZ**

Damaso auzoko Coviran dendan lan egiten du Abdelkebir Agdidetik (Maroko, 1969) duela hiru urtetik. Euskaraz komunikatzen saiatzen da, eta bere kabuz ari da hizkuntza ikasten. Euskal Herriko kultura atsegin du, nahiz eta Marokotik gauza batzuk gustura ekarriko lituzkeen Azpeitira.

Noiz eta nolatan etorri zinen Azpeitira?

Izatez Marokokoa naiz, eta 2006. urtean iritsi nintzen Euskal Herrira. Aurrez, Espainian bizi izan nintzen pare bat urtez. 2006an Bilbon egin nuen geldialdia. Hainbat urtez han egon ostean, 2013an Getariara mugitu nintzen, eta dezente denbora egon nintzen han bizitzen. Getarian ere denda batean egiten nuen lan. 2020an etorri nintzen hona, eta orduz geroztik eroso nago hemen.

Aurrez ezagutzen al zenuen Euskal Herria?

Egia esan, istorio bitxia dut. 90eko hamarkadan Historiako irakasle batek hitz egin zidan aurreneko Euskal Herriaz. Garai hartan, jende askok erakunde armatuarekin eta indarkeriarekin lotzen zuten Euskal Herria, orduko testuinguru politikoa tarteko. Niri, ordea, ez zidan halakorik esan irakasleak. Hark oso ondo hitz egiten zuen Euskal Herriaz, eta zentzu guztietan gomendagarria zela esaten zigun: jendea, giroa, bizi baldintzak... Beraz, hari esker erabaki nuen ni Euskal Herrira etorriko nintzela bizitzera. Murtzian [Espainia] bi urte egin nituen aurrea, eta handik zuzenean etorri nintzen Euskal Herrira.

Marokoren falta nabaritzen al duzu?

Zalantzarik gabe, familiaren falta antzematen dut gehien. Lehen ama eta aita nituen han; dagoeneko aita ez dago, baina ama han bizi da. Asko oroitzen naiz amaz.

Zer ekarriko zenuke Marokotik Euskal Herrira?

Marokoko ohiturak edo tradizioak ekarriko nituzke. Esaterako, jatekoa eta tea. Hemengo jakiak ere goxoak dira, baina gu musulmanak gara, eta ez dugu txerrikirik jaten. Beraz, hango zenbait jaki tradizionalak ekarriko nituzke.

Zer da Euskal Herritik gehien atsegin duzuna?

Dena atsegin dut, benetan. Hori bai, bereziki hunkitzen naute euskal kantek. Ez naiz sekula arabierako kantu batekin hunkitu euskal abesti batzuekin hunkitu naizen beste. Getarian bizi nintzenean, hango festetan eta, asko hunkitzen ninduten kalean abesten zituzten kantek. Asko maite dut Euskal Herria eta euskal kultura: kalera irtetea, ohiturak, euskara, festak... Lagunekin soziedadeetara ere joan izan naiz otorduak egitera.

Dendan lan egiteak harremanak egiten lagundu al dizu?

Bai, saltokian lan egiteak jendearekin hitz egitea eta harremanak egitea erraztu egiten du. Getarian bizi nintzenean ere, fruta eta barazki denda batean egiten nuen lan, eta bai han eta bai hemen, Damason, saltokian lanean aritzeak jendearen artean zein gizartearen bertakotzen lagundu dit. Esaten zidaten euskaldunak itxiak zirela, eta ez dutela askorik hitz egiten, baina ez nago ados. Jendea jatorra eta irekia da hemen. Azkar integratu naiz.

Zein dira zure egitekoak dendan?

Gehienetan kutxazain egoten naiz, baina bestelako lanak ere egitea egokitzen zait behar denean: harategian aritzen naiz edota gauzak beren lekuan kokatzen.

Zer egiten duzu lanetik irtetean?

Ettxera joaten naiz gehienetan. Hala ere, baditut lagunak Azkoitian, eta askotan haiekin gelditzen naiz. Marokokoak baino lagun azkoitiar gehiago ditut.

Moldatzen al zara euskararekin?

Euskara asko gustatzen zait, eta ez dut uste jendeak dioen bezain zaila denik. Ni, oraingoz, ez naiz euskaltegiatar joan, eta neure kabuz ari naiz hizkuntza ikasten. Hiztegia pixka bat kontrolatzen dut, eta dendara etortzen direnei euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Jatekoen izenak, zenbakiak... horiek guztiak badakizkit gutxi gorabehera. Euskara ikasi nahi bada, ahal da. Gainera, bertako hizkuntza jakiteak ate ugari irekitzen ditu. ■■■



Zirkunpolarra

ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Badira zeruan, bizi garen latitudearen ondorioz inoiz ezkutatuko ez zaizkigun astroak.

Eguzkiak, ilargiak eta bestelako izar gehientsuenek lurraren errotazioagatik ortzi mugan sartu-irtena egiten duten bezala, badira urte osoan, ia mugitu gabe, gauero ikus daitezkeen bestelakoak ere.

Izar zirkunpolar bezala ezagutzen dira, eta ipar polotik gertu daudenak dira horiek. Beraz, gu Ipar hemisferioan gaudenez, ez zaizkigu ortzi mugan behera ezkutatzen, eta zeruan, zirkulu batean biraka dihardute gauean. (Hartz Txikia eta Hartz Handia konstelazioak, Kasiopea, Ipar Izarra...)

Irudi hau lau orduko *time-lapse* bat da, 800 argazkiz osatua. Garbi ikusten da Lurraren errotazioa denboran. Ipar Izarra Inazioren bakuluan (zeruan lurrarekiko mugitzen ez den izar bakarra, eta horregatik, nabigazioan historikoki oso garrantzitsua). Horren ingurukoak (zirkunpolarrak) zirkulu txiki bat eginez gau osoan, eta azkenik, iparretik urrundu ahala, urrutiagoko izarren mugimendu handiagoa, hori dela eta, ezin direnak gau osoan edota zenbait urtarotan ikusi. ■■■■





"Eta argia egin zen"


Egia da auzolana tradizioz ezagutu dugula, gutxi ala asko. Egia da, baita ere, garai batetik ia desagertu egin dela auzo edo herri txikietatik. Ohikoa izaten zen urtean zehar auzotarren artean antolatu eta herri inguruko bide, bidezidor, erreka bazter, iturri inguru eta abarrak garbitzea, inolako diru ordainik jaso gabe, herritarrentzat mesederako zelako. Deigarria egiten zait, ordea, politikarien artean – Jaurlaritzako lehendakaria barne– zein sarri erabiltzen duten auzolanaren kontzeptua, auzolangintzan aritzearen onurak aldarrikatuz. Gasteizko gobernuaren leloari errepara diezaiogun: *Eusko Jaurlaritza. Euskadi, auzolana.*

Tira, oraingoan bost bat hamarkada atzera jo, eta auzolanean garatutako planaren istoriotxoa ekartzea otu zait,

Nuarbeko eta inguruko biztanleei onura eta lasaitasun itzela ekarri zion proiektua. Ilea urdindua dugunok ondo gogoan dugu 60ko hamarkadan edo aurreko urteetan jasotzen genuen argindar zerbitzua zein ezegonkorra edo eskasa zen. Haizete edo eguraldi petral samarra izanez gero, akabo argia. Kandelak beti prest. Kontuan hartuta etxe bakoitzean otarreak egiten zirela, ilunpetan gelditutakoan etsipena eta *malaletxea* nabariak ziren. Irtenbidea? Iberdueroren argindar zerbitzuak berme eta ziurtasun osoa zuenez, eta Urrestillaraino iritsia zenez, elektrifikazio linea auzora ekartzea. Norbaitek galdetuko du: "Eta ardura hori herritarrena al da?". Kasu hartan hala gertatu zen. Ez zegoen besterik. Auzolan antolaketa martxan jarri zen, eta etxebizitza bakoitzetik, gutxienez, ordezkari

banak parte hartu zuen lehen bileran. Aurrena beste herrietako esperientziak ikasi behar, eta Alkizara jo zuten. Juantxoren autoan joan ziren, hala dio berak: "Beno, nik autoa ekarri berria eta taxilari egin behar...". Azpeitiko Udalarekin ere jarri ziren harremanetan. "Zapatu arratsaldeak probesten genizkian alkatearekin hitz egiteko, eta ez udaletxean, e! Uztarri tabernan, kopa hartuz eta puru ke artean. Harremana antzua izan huen, eta hurrengo urratsa administrazioko beste maila batera jo behar, hain zuzen, Donostiara, Industriako delegaziora", dio Martinek. Eta misio hori Jose Luisen esku utzi zuten; banketxean lan egiten zuen hark, eta jendearekin erdaraz mintzatzen ohitua zegoen: "Ni gaztetxoa izan, eta kokildu samar sartu ninduan bulegora. Eta ezustekoa! Oso funtzionario

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Koetxoa

Ume jaio eta ume hil. Lehen bai, orain ez; orain ume jaio, ume hazi eta hezi eta ume hil. Beti ume. Gizartea umetu egin da. Zalantza txikienik ere ez dut. Ehun urte barru, historiako liburuetan, gure gizaldia hondoa jo zuen gizaldi bezala aztertuko dute. Seguru. Gogoan dut "gurasoen kontu bizi, seme-alaben kontu bizi arte" esaldia indarrean zegoeneko garaia. Aitona nerabeok gazte gineneko garaiak. Haiek bai garaiak. Orain, gure erruz, gurasoen kontu bizi gara, seme-alaben esklabu. Bai. Eta ez egin kontra. Gure haurrei laguntzen ari garelakoan kalte egiten diegu. Baietz, kalte. Hasi parketik eta gaztaroan zeure logela beraien esku uzteraino. Gizajoa, gajoa. Lagundu egin beharko diegu ba. Lagundu? Nola helduko dira ba beraien egin beharreko dena guk egiten badiegu. Etxeko lanak, entrenora eraman eta ekarri, parrandara eraman eta ekarri, unibertsitaterako joan-etorria, dena. Guk. Beraiek hartu beharreko erabakiak ere guk hartzen dizkiegu. Guk. Niretzat, egiten ari garena koetxozko heziketa da. Gaizki ari garela jakin arren, gaizki egiten jarraitzen dugu. Kottaduak.

Ondorioa: bokalez nahastu gara. Gizartea emetu beharrean umetu egin dugu. ■

adeitsua eta borondatetsua topatu nian. Esan nioanean udaletik ez genuela esperantzarik jaso... 'Eso ya veremos', erantzun zean. Haren laguntza ezinbestekoa izan huen proiektua bideratzeko". Istorio honetan ezin ahaztu J. R. Araolaza ingeniaria, hura izan baitzen proiektua idatzi eta Iberduerori aurkeztu ziona. Teknikaria topografo lanetan hasi zenean, berri, Xexiliok lagundu zion argindar zutoinen kokapena zehazten: "Jo, haiek uneak! Hasi soroan zuloa egiten, eta... jabea irainka, hark ez zuela utziko zutoinak han sartzen eta. Zenbat komeri". Azken txanpara iritsita, Boniri –soldaduskatik lizentziatu berria– Iberdueroko teknikariari laguntzea tokatu zitzaion, etxe bakoitzera joanez argindarraren zenbateko potentzia jarri nahi zuten jakiteko. Eta horrela beste hainbat eta hainbat auzokide

anonimo aritu ziren auzolanean, buru-belarri inplikatur proiektuan. Udaletxeko artxiboko paperetan oinarrituz, 60 familiak jaso zuten zerbitzu berria, eta bost urte iraun zuen argindarra Nuarbera ekartzeko erronkak. Gainera, paper horietan zehazten da zenbat diru jarri beharra zegoen batzordeari; "Xentimorik ez genian jarri", dio Martinek. Hain justu, aurten 50 urte bete dira nuarbetarrek ahaztu zituztela kandelak eta gauean sukaldeko mahai gainean argi pittin bat izateko jartzen ziren *maripoxak*. Behar bezala ospatzeko, 'hostoko' erraldoia antolatu zuten bertako elkartean. Merezitakoa.

Genesis liburutik ateratako hitzetan oinarrituz, eta kasura ekarriz: "Argia izan bedi! Eta argia izan zen...", bost urtetako auzolanaren ondorioz. Gorazarre eta eskertza lortu zenutenagatik. ■





Musika geneetan

Familia musikariak badira Azpeitian, askotarikoak dira, gainera; belaunaldiz belaunaldi instrumentu berdinak jotzen dituztenak, erabat desberdinak diren tresnak jotzen dituztenak, hainbat taldetan parte hartzen dutenak... Musika ikasi eta jo arren, behin bakarrik jo izan dute familiakoek elkarrekin, aukera hori Juan Antxieta musika eskolak eskainita denek.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta Uztarria**.

Xexili eguna izango da azaroaren 22an, Musikarien Eguna. Azpeitian badira musikariz osatutako familiak, musikari balioa eman, eta beren oinordekoak musikara zaletu edota musikan hezi dituztenak. Aurreko ikasturtean, Juan Antxieta musika eskolaren 40. urteurrenari lotuta, musika eta familia uztartuz bi emanaldi antolatu zituzten Sanagustin kulturgunean. Bi jaialdi horietakoren batean parte hartu zuten familietako batzuk dira honakoak.

Arandiatarrak, trikitiari lotuak

Bi anaia, alaba bana. Aitak zer jo, alabek ere instrumentu bera ikasteko eta jotzeko hautua egin dute. Laurak trikitiari lotuak. Jatorriz Albizturkoak dira Xabier eta Andoni Arandia anaia;



azpeitiarrak, hurrenez hurren, Iraia eta Izaro Arandia beren alabak. Txiki-txikitatik izan dute trikitirako zaletasuna bi anaiek, hala azaldu du Andonik: "Hiru anaia gara, eta ni eta beste anaia bizkiak gara. Bizkiok panderoa jotzen dugu, eta Xabierrek soinua. Xabierrek eta biok seme-alabak ditugu, semeek ez diote heldu trikitiari, baina bai alabek; nireak [Izaro] nik bezala panderoa jotzen du, eta Xabierrenak [Iraia], berak bezala, soinua".

Txiki-txikitatik izan dute trikitirako zaletasuna. "Albizturren ondoko baserrikoak jotzen zuen, eta hura hasi zen guri irakasten. Iñaki eta Ramon trikitilariak izan genituen maisuak". Alabek beren zaletasunari heldu diotelako harro daude biak, "polita eta aberasgarria" dela diote. Panderoa edota soinua ez diren beste musika instrumenturik ikasteko tentaziorik ere ez dute izan Izarok eta Iraiak. Juan Antxieta musika eskolan ari da trikitia ikasten Iraia. Izaro musika eskolan eta Lajarekin ibilitakoa da panderoa ikasten, orain denbora faltan, "aitari begira edota YouTubeko bideoak ikusiz" jarduten du panderoa jotzen.

Familiako ospakizunetan trikiti doinuak presente izaten dituzte arandiatarrek. "Etxean jotzeko ohiturarik ez dugu, baina bazkariren bat dugunetan jotzen dugu trikitia, eta alabak ere batzen dira. Bestelako giro bat sortzen da", diote. Trikitiarekin plazetan aritzeko aukerak gutxitu egin direla uste dute, eta laurak elkarrekin jarduteko aukera gutxi izan dituzte. Musika eskolak antolatutako 40. urteurreneko jaialdian jo zuten elkarrekin, baita Albizturgo Trikitilari Egunean ere.

Beren etxeetan trikitia dezente entzuten dutela diote Izarok eta Iraiak. "Gu gehiago gara pieza zaharren zaleak, eta alabak, aldiz, modernoagoenak. Trikitia ez den beste musika mota bat ere entzuten dute seme-alabek, baina, baloratzeko, denetik entzun behar izaten da", diote bi aitek.

Cuevas-Zeberio, kirolean bakarrik ez

Kirolari lotuta ezagunak dira Asier Cuevas eta Onintza Zeberio, baina kirolak bezainbeste garrantzi du beren etxean musikak.



Ezkerretik eskuinera, Andoni Arandia, Izaro Arandia, Iraia Arandia eta Xabier Arandia.

"Etxeak orkestra bat eman izan du hainbat unetan. Pandemia garaian musika tresnez beteta genuen egongela, eta semeekin [Aner eta Kilian Cuevas] instrumentuak jotzen aritzen ginen", dio Asierrek. "Kirola gustukoa dugu denok etxean, baina niri musikak asko balio izan dit erlaxatzeko eta lasaitzeko, eta beti gustatu izan zait semeek musikarekin harremana izatea. Txikitatik ibili dira musika eskolan, gustura gainera", azaldu du Zeberio. Anerrek lehen pianoa ikasten zuen, eta orain perkusioa ikasten ari da musika eskolan; Kilianek, berriz, gitarra ikasten du, eta "ondo abesten" du.

Zeberio Txistuko ikasketak eginda ditu, eta garai batean goiz eresiak-eta egiten zituen txistulari taldearekin. "Orain ikastolako jaialdietan eta tokatzen denean jotzen dut txistua, gainontzean ez", azaldu du.

Asierrek ere txikitan txistua jotzen zuen, "bost bat urtean". Gaztaroan, ordea, lagunartean bateria jotzen hasi zen, "Eibarren lokal batean elkartzen ginen lagunak musika jotzeko". Musikarako nahiz korrikarako "erritmoaren zentzu ona" duela aitortu du Asierrek, eta musika entzunez entrenatzen du, "erritmoa eramaten" laguntzen diolako. Musika "gogorra" du gustukoa, "heavya eta hard rocka". "14-15 urterekin ikusi nuen lehen musika kontzertua, Iruñean; Monsters Of Rock jaialdian Iron Maiden, Metallica, Anthrax eta Helloween taldeek jo zuten. Bateriara Nicko McBrain, Lars Ulrich... bateria jotzaile horiek entzunez zaletu nintzen". Orain, etxean Aner semearekin aritzen da bateria jotzen Asier, baina gainontzean utzita du; "Anerrek nik baino hobeto jotzen du bateria, abilezia handia du musikarako".

Etxeko laurak batera behin bakarrik jardun dute jendaurrean, Juan Antxieta musika eskolak 40. urtemuga ospatzeko antolatutako jaialdi batean. "Hasieran, Asierrek ez zuen nahi bateria jotzea, baina semeei ilusioa egiten zien aitak ere parte hartzea emanaldian. Kirolean bezala, beste edozertara ere buru-belarri jartzen da Asier,



eta orduan ere hala aritu zen", kontatu du Zeberio. "Errikulurik ez nuen egin nahi, baina oso ondo atera zen gero, eta poz-pezik gelditu ginen etxeko laurok".

Elkarrekin musikan jardutea "hunkigarria" izan zen Zeberioaren ustez, "kirola ez beste esparru batean elkarrekin jardutea oso polita izan zen". Berririo laurak batera musika jotzeko ordukoaren antzeko ekitaldi batek izan beharko duela dio Zeberio, bestela zaila izango dela.

Garmendia-Aranaga, kide hainbate instrumentu

Hainbat instrumentu jotzen dituzte Urrestillako Garmendia-Aranaga familiako kideek. Amaia Aranagak biolina, pianoa "pixka bat", txistua, dultzaina eta txalaparta jotzen ditu. Ibon Garmendiak txistua eta txalaparta. Biak Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldeko kideak dira, eta Ibon Urretxuko txistulari taldeko kidea ere bada, eta hango txistulari alardeak zuzentzen ditu. Beren seme-alabek ere badute musikarako zaletasuna, eta musika eskolako ikasleak dira Ekhi (perkusioa), Mattin (tronboia eta adarra) eta Kattalin (panderoa) Garmendia; bi anaiak, gainera, Banda Gazteko kideak dira.

Musikari esker ezagutu zuten elkar senar-emazteek. "Urrestillako sanjoanetan, Pako Aristi eta lagunek kantu eta musika saioa antolatzen zuten. Garai hartan, ni Bartzelonan nengoen ikasten, eta askotan ez nintzen izaten. Oso kantuzalea naiz, eta urte batean, Pakok dultzaina jotzera joateko esan zidan, eta han ezagutu nuen Ibon. Orain, Benta Zaharreko Mutiko Alaiarekin egiten dugu saioa sanjoanetan", gogoratu du Aranagak.

Sanjoanetan bakarrik ez, pandemiaren geroztik, txistua hartu eta kalejirak egiten dituzte senar-emazteek Urrestillan, igandeetan hilean behin. "Izurriagatik etxeratuta geundenean, Ibonek txistuarekin kalejira egin behar zuela esan zidan. Bakar-bakarrik

Bateria jotzen Asier Cuevas, gitarrarekin Kilian Cuevas, txistua jotzen Onintza Zeberio eta pianoan Aner Cuevas, Sanagustin kulturunean.

ARANDIATARREN FAMILIAN AITEK ZER INSTRUMENTU, HURA IKASI DUTE ALABEK

ASIER CUEVASEK ETA ONINTZA ZEBERIOK KIROLARI BESTE BALIO EMAN DIOTE ETXEAN MUSIKARI



Kattalin, Ibon, Ekhi eta Mattin Garmendia eta Amaia Aranaga.

egin zuen kalejira, eta herritarrek esker mezuak bidali zizkiguten. Handik aurrera, biok hasi ginen kalejira egiten". Batzuetan, kalejiraren garaian, Mattin semeak adarra jotzen du.

"Seme-alabak guk nahi genuelako apuntatu genituen musika eskolan, baina gustura dabilta. Gero, bakoitzak nahi duen instrumentua ikastea aukeratu du", azaldu du Aranagak. Ekhi berretsi egin du amak esandakoa, "Banda Gaztean oso ondo pasatzen dugu. Perkusioan hiru-lau lagun elkartzen gara, eta instrumentu desberdinak jotzen ditugu: bateria, xilofonoa, triangelua, marakak...".

Musika uztarri eta oinarri dute Garmendia-Aranaga familiaren etxean, eta entseatzeko txoko bat ere badute prestatuta garajea. Etxean, autoan... beti izaten dute musika jarrita. Behin bakarrik jo dute bostak batera; horiek ere musika eskolaren 40. urteurrenako jaialdi batean. "Bostok eta amamak [Begoña Bereziartua] jo genuen. Gure ama oso musikazalea izan da beti, eta orain dela hiru urte pianoa ikasten hasi zen, eta oso gustura dabil. Abbaren *Dancing queen* jo genuen Sanagustinen, eta oso gustura", adierazi du Aranagak.

Gurrutxaga eta Gorrotxategi, hiru belaunaldi

Felix Gurrutxagak 66 urte daramatza klarinetea jotzen Azpeitiko Musika Bandan. "San Pedro egunez debutatu nuen bandan, Ezkuztan jo genuen", dio. Agurtzane Gurrutxagak -Felixen alaba- eta Aitor Gorrotxategik, berriz, 1988ko San Sebastian bezperan irten zuten aurreneko bandan; biek ala biek klarinetea jotzen dute. Agurtzanek, ordea, 2007an, "lehen alaba jaiotakoan" banda utzi egin zuen, baita klarinetea ere.

Elene, Nora eta Miren Gorrotxategi alabek ere musika ikasten dute; baina, hiruretatik inork ez dute bandan jotzen, ezta klarinetea



jotzen ere. "Ni hasi nintzen klarinetea ikasten, baina ez zitzaidan hainbeste gustatzen, eta utzi egin nuen. Gero, soinua eta panderoa ikasten hasi nintzen", dio Elenek, alaba zaharrenak. Gazteenak ere, Mirenek, trikitiari heldu dio eta "abestera ere" ausartzen da, aitaren esanetan. Erdikoak, Norak, biolina jotzen du.

Agurtzanek aitak klarinetea jotzen zuelako aukeratu zuen instrumentu hori. Jose Luis Franzesenarekin eta Iñaki Alberdirekin ikasi zuen instrumentua, eta musika eskola bukatu aurretik hasi zen bandan. Aitorrek, berriz, musika eskolan instrumentua aukeratzeko garaia iritsi, eta orduan ohikoenak ez zirenetako bat hautatu zuen: klarinetea. "Enparan Dorretxean egindako entzunaldi batera joan nintzen, eta han jo zituzten instrumentuetatik klarinetea gustatu zitzaidan. Bigarren eskuko klarinete bat 56.000 pezeta kostatu zitzaidan, baina inbertsio ona izan zen", dio. Gero, Loiola Irratian entzundako iragarki bati esker hasi zen bandan. "Jende gaztearen bila ari zirela eta iragarkia entzun zuen gure amamak, eta klarinetea ikasteak zerbaitetarako balio beharko zidalako, bandara joatea proposatu zidan". Ez du damurik Aitorrek, bandan "lagunarte ederra" aurkitu duelako; Agurtzanek ere, bandan ibili zeneko oroitzapen "oso onak" ditu.

Aitonak, aitak eta amak hartutako bandarako bidea ez dute segitu Elenek, Norak eta Mirenek. Dena den, familiako ospakizunak girotzen abilak dira. "Ezer esan aurretik soinua eta panderoa jotzen hasten dira", diote gurasoek.

"6-7 urte zituztela guk apuntatu genituen alabak musika eskolan, eta gustura aritzen dira. Instrumentua hautatzeko orduan libre izan dira nahi dutena aukeratzeko". Alabak musikan hezte gurasoen hautua izan dela azaldu du Agurtzanek, etxean beti "balio handia" eman diotelako musikari. ■■■

Ezkerretik hasita, tente, Miren, Nora eta Elene Gorrotxategi; eserita, Aitor Gorrotxategi, Felix Gurrutxaga eta Agurtzane Gurrutxaga. Soreasun, Azpeitiko Musika Bandaren egoitza.

GARMENDIA-ARANAGA FAMILIAKO KIDEEK INSTRUMENTU UGARI JOTZEN DITUZTE

FELIX GURRUTXAGAK KLARINETEA JOTZEN DU, BAITA ALABAK ETA SUHIAK ERE; EZ BILOBEK, ORDEA

Gutuna (II)



IONE GURRUTXAGA

Azkar pasatzen omen da denbora. Hala esan izan digute aurrekoek guri, eta, urteen joanean, geu ere nabaritzen hasiak gara ez zebiltzala hain oker. Konturatzerako, joan dira hiru hilabete gure artera etorri zinela. Urte laurden, egunen joan-etorrian.

Berritasunak berekin dakar ilusioa, ezer jakin aurretik dena idealizatzeko joera. Baina ezin uka sabel barreneko kilimak ere eragiten dituela etorriko den horren peskizak. Zuk, iritsi orduko, denetik eragin duzu zure inguruan; besapean, ogi bat ekarri ordez, izendapen berri ugari ekarri eta han-hemen banatu baitituzu: ama, aita, aitona-amonak, izebak... Zorionekoa zu, oraindik hain txikia izanik, poztu baitituzu bazterrak, sortu irribarreak, baina, era berean, zuretzat onena nahi duten horien artean, piztu izango dituzu kezkak eta zalantzak.

Eta ez da harritzekoa. Izan ere, ez dizut gezurrik esango, hartu zaituen mundu honek badu onetik bezainbat txarretik. Gainerakoen antzera, urteen joanean zeu ere konturatuko zara, baina etenik gabe aldatzen ari den gizarte batera iritsi zara, gero eta azkarrago funtzionatzen dugun gizakion artera. Zure

ama jaio zen garaitik hona, esaterako, aldaketa asko izan ditu gure inguruak, aldaketa asko bizimoduak. Hamarkada gutxian, inguruari erreparatuz bizi zen gizarteaz izateari utzi, eta teknologiarik gabe bizitzen ez dakien gizarte bihurtu gara. Zertarako begiratu leihotik lainorik ba ote den zeruan, Interneteko bilatzaileraren bateko leihoren batean topa badezakegu erantzuna?

Azken urteetan, aurrerapenak ezagutu ditugu teknologian, aurrerapenak zientzian, aurrerapenak bizitzeko moduan... Baina, oraindik, gutxien espero dugunean, historian atzera egiten dugu jauzi, sarri itxurakeria hutsa izan den aldaketa hori guztia ahaztuta. Badira urteak "laurogeian jaio naiz, eta kirolaz bizi nahi dut, aita" abestu zutela Maixak eta Ixiarrek (bide batez, trikitiaren munduan emakumeek ere bazutela tokia erakutsiz), baina orain gutxi arte ez da izan futbol zelai edo pilotalekurik leporaino beteta

**ORAINDIK, GUTXIEN
ESPERO DUGUNEAN,
HISTORIAN
ATZERA EGITEN
DUGU JAUIZ**

emakumezkoen partidak ikusteko. Ederki poztu izan gara gainditutako muga txiki bakoitzarekin, bai baitzirudien azken urteetan aldaketa haizeak iritsiak zirela kirol mundura, eta, urratsez urrats, emakume kirolarien baldintzak, pixkanaka bada ere, hobetuz zihoazela. Baina bai zera! Zu jaio eta berehala Espainiako futbol selekzioko nesken inguruan izandako gorabeherak eta esandakoek argi utzi digute begitazio hutsa dela oraindik berdintasuna.

Dena den, zaude lasai: etxe onean munduratu zara zu. Neska nahiz mutil izan, nahi duzuna lortzeko gogor lan egin beharko duzula erakutsiko dizun familia bat suertatu zaizu parean. Baina ametsak betetzeko daudela ikusteko adibiderik onenak ere parez pare izango dituzu: lanak beti ekartzen duela emaitza, alegia, munduko edozein txokotan zaudela ere.


Ez beldurtu, beraz, txar guztiak kenduta, bizitza benetan ederra baita. Orain, pausorik pauso aurrerantz jarraitzea dagokizu, bizitzaren alderdi onei helduz, bizitzaren alderdi txarrak aldatuz. Baina, betiere, urrats bakoitzaz gozatuz, eta zaharrek ziotena gogoan hartuz: denbora azkar pasatzen omen da. Azkarregi, gehienetan. ■■■

Ni eta zu batzean
nola sortzen den gua
Ni eta zu solastean,
komunikazioaren sua
Su hori herrira zabaltzea
hedabideon sekretua
Txikiak batzean handi
bilakatzen da bozgorailua

Bat eginda ere,
herriari eginez keinua
Haziz eta haziz dihoa
euskal hitzen putzua
Beti-betikoak gara,
hau duzu heldulekua
Guka aritzea ez baita
hain zeregin konplexua
Horrela kolektiboagoa da
guztion bizimodua

Idazlea:

Ihintza Elustondo



"Dislexia hautemateko seinaleak txikitatik ikus daitezke"

INGA SEGUROLA DISLEGI ELKARTEAREN DEBABARRENEKO DELEGAZIOAREN LEHENDAKARIA

Iaz eratu zuten Dislegiren Debabarreneko delegazioa Inga Segurolak eta beste hainbat kidek. Gaur egun, Dislegi Gipuzkoako Dislexia elkartearen barruan jarduten dute ordezkaritza moduan. Familiak hauspotu, gaia gizarteratzeko hitzaldiak eman eta dislexia duten herritarrei laguntza eskaintzen diete taldekideek.

Testua: **Intza Trula**. Argazkia: **Intza Trula eta Dislegi elkarte**.

Dislegiren Debabarreneko lehendakaria da Inga Segurola (Azpeitia, 1980). Momentuko beharrek eta arrazoiek bultzatuta elkartu ziren hasiera batean hainbat herritar, eta bilera batzuk egin ostean, Dislegi Gipuzkoako dislexia elkarte elkartearekin elkarlanean hastea erabaki zuten. Gaur egun, hamabi familia inguruk osatzen dute taldea. Besteak beste, dislexia duten herritarrei eta haien familiei laguntza eta baliabideak ematea da delegazioaren lan nagusietako bat. Horrez aparte, dislexia gizartean ezagutzera emateko lan egiten dute egunero.

Zer da dislexia?

Dislexia burmuinak hizkuntza identifikatzeko duen zailtasuna da. Zailtasun horrek eragina du alde batetik, idazketan, eta bestetik, irakurketan. Gure hezkuntza sistema irakurketan eta idazketan oinarrituta dagoenez, eragin egiten die dislexia duten ikasleei. Bi gauza garrantzitsu azpimarratu nahiko nituzke: lehenik eta behin, esan nahi dut dislexiak ez duela inolako zerikusirik ez adimenarekin, ez erlijioarekin, ez kulturarekin, ezta nazionalitatearekin ere. Hau da, leku

guztietan ematen den gauza bat da. Eta bestea, garbi utzi nahi dut ez dela gaixotasun bat. Dislexia ez da sendatu daitekeen zerbait, baizik eta hainbat herritarrek duten kondizio bat. Beraz, pertsona bat dislexiko jaiotzen da eta dislexiko hiltzen da. Horrez gainera, guztiak desberdinak dira; ez daude dislexia duten bi pertsona berdin.

Nola hauteman dezakegu?

Dislexia hautemateko seinaleak txiki-txikitatik ikus daitezke berez: psikomotrizitate saioetan, adibidez. Geroago, sei edo zazpi urterekin, irakurtzen hasten direnean ere ikus daitezke, baina seinaleak lehenagotik datoz. Hori horrela denez, oso garrantzitsua da eskolan daudenean arreta berezia jartzea gai honi. Izan ere, adin horietan eskolan igarotzen dituzte eguneko ordu gehienak, eta seinaleak hautemateko beharrezkoa da momentu horiei garrantzia ematea. Seinaleak zenbat eta lehenago ikusi, orduan eta lehenago edukiko dute diagnostikoa egiteko aukera.

Irakasleak nahiko prestatuta al daude seinale horiek identifikatzeko?

Egia esan, gaur egungo irakasle gehienak ez daude prestatuta seinale horiek garaiz hautemateko. Gure delegazioa arrazoi hori eta beste hainbat aspektuk behartuta sortu genuen, eta, adibidez,





Dislegi Debabarreneko hainbat familia. DISLEGI

formakuntzak bultzatzeko jarduten dugu lanean. Gainera, nire iritziz, irakasle izateko prestatzen ari direnek oso ordu gutxi dituzte gai honen inguruan unibertsitatean. Formakuntza bat behar dute irakasleek ere, laguntza bat dislexia zer den eta nola hauteman daitekeen jakiteko.

Garrantzitsua al da goiz hautematea?

Ezinbestekoa da garaiz hautematea. Berez, dislexia diagnostikatzea ez da zaila, baina zentro guztietako irakasleen lana ezinbestekoa da, baita haien eta familien arteko elkarlana ere. Garaiz hautemanez gero, gauza asko saihestu daitezke; eskola porrota, besteak beste.

Behin hautemanda zer da egin beharrekoa?

Diagnostikoa ezinbestekoa da, eta diagnostiko hori psikopedagogoarekin egiten da. Ondoren, psikopedagogoaren laguntzarekin lanketa prozesu bat hasten dute eta bertan pertsonen trikimailuak eta teknikak irakasten dizkiete, ikasketak aurrera ateratzen laguntzeko.

Nola lagundu dezakete ingurukoek?

Inklusioa hitza oso modan dago gaur egun, eta hasteko hori egin beharko genuke laguntzeko. Oso garrantzitsua da onartzea. Dislexia duten eta ez dakiten pertsona askok frustrazioz betetako motxila bat daramate soinean, eta horrek asko eragiten du beraien jarreran. Depresioa izan dezakete haietako askok, eta muturreraino joz

gero, eskola porrota. Hori guztia ekiditeko beharrezkoa da guztion laguntza, eta baita nork bere aldetik laguntza ematea ere.

Iaz erabaki zenuten Debabarreneko delegazioa sortzea. Zer dela eta?

Dislexia duen alaba bat daukat, eta momentuko beharrek bultzatuta eratu genuen delegazioa. Hasieran, inguruan genituen familiekin elkartu ginen bilera batzuk egiteko, eta erabaki genuen Donostiako dislexia elkartearekin harremanetan jartzea. Ondoren, beraiekin elkartu ginen, eta behin proiektua ezagutu genuenean, Debabarreneko delegazioa sortzea eta elkarlanean jardutea erabaki genuen. Orain hamabi familia inguruk osatzen dugu taldea: batzuk Elgoibarkoak eta beste batzuk Azkoitikoak. Lan talde bat dugu osatuta; lehendakaria, idazkaria, diruzaina... Nik momentu honetan lehendakari modura jarduten dut bertan.

Kanpoko laguntzarik jasotzen al duzue?

Bai; Elgoibarko Udalaren laguntza jasotzen dugu eta Danobat kooperatibak ere laguntzen digu. Horrez gainera, Azkoitiko Udalarekin elkarlanean ari gara.

Zer lan egiten duzue eta zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Dislegiren barruan gaude, eta Dislegiren Debabarreneko delegazioa zuzentzen dugu. Hala



Inga Segurola dislexiaren inguruko hitzaldi bat ematen. DISLEGI

**"BURMUINAK HIZKUNTZA
IDENTIFIKATZEKO DUEN
ZAILTASUNA DA DISLEXIA"**

**"DISLEXIA EZ DA GAIXOTASUN BAT,
EZ DA SENDATU DAITEKEEN
ZERBAIT, KONDIZIO BAT DA"**

**"GARRANTZITSUA DA GOIZ
HAUTEMATEA, BESTEAK BESTE,
ESKOLA PORROTA SAIHESTEKO"**

eta guztiz ere, Debarrenaz gainera, Azkoitia geografikoki gertu daukagunez, hango familiekin ere egiten dugu lan. Gure lantaldearen funtzioak dira irakasleak formatzea, familiei behar duten guztian laguntzea, eta nola ez, dislexia dutenei teknikak eta trikimailuak irakastea, beraien bizitza ahalik eta modurik egokienean aurrera eraman dezaten.

Dislexia kultura guztietan eta baldintza sozioekonomiko guztietan egon arren, gaiaren inguruan nahikoa hitz egiten dela uste al duzu?

Ez, egia esateko. Orain, delegazioen eta elkarten bidez kaleratzen dugu gaia. Pixkanaka-pixkanaka lanean jardungo dugu dislexia ezagutzera emateko. Izan ere, guztiok –edo gehienok– entzun dugu dislexiaren inguruan zerbait; agian, zenbakiak alderantziz irakurtzen direla eta abar. Horrek denak, baina, atzetik gauza asko ditu, eta gizartearen gehiengoak ez da horren jakitun. Gure elkartearen lanetako bat da dislexia kalera ateratzea eta gizartearen ezagutaraztea.

Horretarako, irakasleen formakuntzan sakontzea behar-beharrezkoa iruditzen zaigu, baita familiei beharrezko tresnak eta informazioa ematea ere. Horrez gain, ikastaroak eskaintzea ere oso garrantzitsua da, gauzak bere bidetik joan daitezen.

Dislexia dutenek zein motatako laguntza jasotzen dute?

Pertsona bakoitzak diagnostiko bakoitzaren arabera laguntza jasotzen du. Sistema aldatzen doa, eta oraindik lan asko dago egiteko. Eskolan, adibidez, badute lagungarria den Hezkuntza Premia Berezia-W67 plataforma.

Laguntza hori nahikoa da ala gehiago jaso beharko luketela uste duzu?

Jasotzen duten laguntza ez da nahikoa. Laguntza gehiago jaso beharko lukete diagnostikatzeko orduan. Hortik aurrera dator beste guztia.

Zenbat jenderi eragiten dio dislexiak munduan?

Mundu osoan herritarren %10 ingururi eragiten die dislexiak, baina diagnostikoa egin dutenen kopurua ez da %1era ere iristen. Horrekin esan nahi dudana da diagnostikatu gabeko jende asko dagoela. Diagnostiko bat ez izateak egokitzapen bat ez edukitzea dakar askotan, eta horrek esan nahi du, adibidez, selektibitatean ez duela izango egokitzapenak egiteko aukerarik, ezta beste edozein azterketa ofizialetan ere.

Diagnostikoa eginda izatea behar-beharrezkoa da horrelako gauzetarako nahiz beste hainbatetarako. ■■■



JASO ETA EMAN, BORONDATE OSOZ

Horren aztoratuta dabilen mundu honetan, bada bestelako ikuspegi bat duen jendea. Daukatena eta dakitena besteekin musu truk partekatzeko prestutasuna dutenak. Hainbat herritar daude eskualdean modu boluntarioan eskolak eskaintzen edo ikasketetan nahiz euskaraz hitz egiten trebatzeko laguntza ematen. Horietako batzuk dira Mari Jose Iparragirre oriotarra, Imanol Agirre azpeitiarra eta Zarauzko Ikaslagun egitasmoa.

Testua: Aritz Mutiozabal. Argazkiak: Aritz Mutiozabal - Intza Trula





Ikasturte hasierarekin batera, bateko zein besteko ikastaroen zurrunbiloan harrapatuta geratzeko ohitura du gizarteak. Futbol, saskibaloï edo judo eskolak, musika eskoletako klaseak, ingeles akademïak eta euskaltegiak, kiroldegietako edo gimnasioetako saioak, artegintzan trebatzeko aukera ematen dutenak... Eskaintza oparoa bezain andana dago, baina dena ez da arrosa kolorekoa. Tarifen zenbakiekin malabarrak ere egin behar izaten dira maiz; batik bat, ikastaro batean baino gehiagotan izena ematen badu norbanakoak eta, are gehiago, familia batek. Beste batzuei, haien errealitatea bestelakoa delako, askotan ezinezkoa zaie halako aukerez baliatzea.

Aitzitik, badira inolako irabazi asmorik gabe, borondate hutsez eta boluntariotza lana eginez, behar gehien dutenei klase partikularrak ematen dizkietenak, mintzalagun izateko beraien buruak aurkezten dituztenak, margogintza eta eskulanak haurrei erakusteko pasioa dutenak, gitarra jotzen edo jostintzan trebatzen irakasten dutenak eta abar. Edozein herritan dago ezer eskatu gabe laguntzeko prest dagoen jendea. Beste mundu ikuspegi bat dute, gero eta berekoiagoa eta kontsumistagoa bihurtu den honen ifrentzua dira. Jaso eta eman, eman eta jaso, eta horrela, kateak eten gabe iraun dezan. Boluntarioen jardunari balioa ematen dioten herritarrak dira.

ARTERAKO PASIOA HELARAZTEN

MARI JOSE IPARRAGIRRE



Bokazio handiko artista da Mari Jose Iparragirre (Orio, 1954). Sortzaile geldiezina izateaz gain, borondate itzela du. Margogintzan Iñigo Ormazabal eta Javier Sagarazarekin trebatu ondoren, bere kabuz ekin zion bideari. Herritar batek komentatu zion Iparragirreri seme-alabak gustura eramango zituzkeela margotzen ikastera, baina Orion marrazketa eskolarik ez zegoela. "Zure aitonak niri fabore bat egin zidan bere garaian, eta oraingoan nik egingo dizut faborea. Horrela ados geratuko gara", erantzun zion.

Hala, Rosa Esnalek eta biek joskintzan aritzen ziren eta arropa konponketak egiten zituzten lokal txikian hasi zen eskolak ematen: aurrena seme-alaba haiei, baina berehala handitu zen taldea, haien lagunak ere interesa erakutsi zutelako. "Nola esango nien ezetz! Nik nire garaian horrela aukerarik izan banu, gustura asko joango nintzatekeen. Beraz, umeei etortzeko esaten diet". Kontua da horrenbeste

lagun animatu zirela, ezen lokaltxo hartan ez zirela denak kabitzen.

Alabak eta suhiak zeukaten lokal handiago batera lekualdatu zen, Salatxo ondora, eta bi ilara mahai jarrita atondu zuen espazioa. "Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Beno, zuretzako ere egingo dugu tokia!'" . Dozena bat urte eman zituen bertan "oso gustura", eta, gainera, sortzen zituen eskulanekin erakusleihoan egundoko "muntaiak" egiten zituela dio Iparragirrek: "Askotan tematikoak izaten ziren, eta herritarrak ikustera bertaratzen ziren". Behin etapa hori igarota, klaseak emateari utzi zion, baina berak jardunean jarraitu zuen.

Aldi horretan egindako lanekin erakusketa zabaldu zuen Gure Txoko tabernaren eta litxarrerria denda arteko lokalean. Ikustera joan ziren haurrak ea jada zergatik ez zuen eskolarik ematen galdezka hasi zitzaizkion, baita gertuko bat ere. "Pena eman zidaten, egia esan". Gertuko zuenari larunbat batez lokalera joateko esan zion, eta berriro ere ahoz aho zabaldu zen berria: "Berriz etortzen hasi ziren, eta haiek ikusita, beste batzuk ere animatu egin ziren, lehen ibilitakoak zirela eta jarraitu nahi zu-



tela esanez. Horrela hasi nintzen berriro ere, eta jada bi urte goaz”.

Lokal txikia duen arren, "ezezko" hitza ez da ageri bere hiztegian: "Umeei erakutsi egin behar zaie, jakin-min hori baldin badute". Berehala hunkitzen dela dio, sentsibiltate artistikoa duen seinale, eta haurrak arte mundura zaletzea du helburu; izan ere, "egungo jendea oso lotuta dago *makinitetara* eta mugikorretara, eta hori ez zait batere gustatzen”.

Eskolak ematen ditu, borondatearen truke: "Zenbat den galdetzen didate gurasoek, eta nik lasai ibiltzeko erantzuten diet. Lehen gutxi eskatzen nuen, lokala behean genuenean, gastuak ordaintzeko esaten dena; baina hemen ez dut ezer eskatzen". Kaxa gorrixka bat du, nahi duenak bere ekarpen ekonomikoa egin dezan. "Iruditzen baldin bazaie dirua jasotzea merezi dudala, kaxan bertan sartu eta kito. Ni ez naiz jabetzen zenbat ematen didaten. Are gehiago, ez diet ezer aurpegiratzen”.

Arraroa da gisa horretara funtzionatzea, eta Iparragirre bera ere kontziente da. "Ikastaro guztietarako ordaindu egiten da gaur egun, baina nik neure buruari esan nion: ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dudanez, diferentea da". Oraindik hasiera-hasierako lehen ikasle haiek topatzen ditu kaletik, eta "agur Mari Jose!" agurtzen dute. Batzuen izenak berehala gogoratzen ditu, eta besteenak, berriz, gerora etortzen zaizkio akordura. "Kasu egiten didaten guztietan sekulako poza ematen didate. Horrek esan nahi du gustura ibili zirela nirekin. Asko balio du niretzat”.

"Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Zuretzako ere egingo dugu tokia!'"

"Ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dut eta diferentea da"

IKASKETETAN AURRERA EGITEKO IKASLAGUN



2016an jarri zuten Ikaslagun egitasmoa martxan Zarautzen, aurretik Donostian ekin zioten eredu kontuan hartuta. Gizartea aldatzen ari zen eta arazo edo egoera berriak sortzen ari ziren: familia migratzaileak, desegituratuak, pobretuak... Ondorioz, hezkuntza aldetik haurrak atzean geratzen ari ziren, etxeko giroa haiei laguntzeko moduan ez zegoelako. Orduan erabaki zuten eskola partikularrak ematea dohainik, ikasketetarako laguntza behar zutenei eta aparteko laguntzarik ordaindu ezin zutenei. "Ildo beretik, guk erabaki genuen gauza bera egitea Zarautzen", kontatu du hastapenetatik dabilen Marije Zumeta (Zarautz, 1953) irakasle jubilatuak.

Kide batzuk elkartu ziren hasiera hartan, eta orain, urtero-urtero elkartzen dira ikasturte hasieran dena programatzeko. "Boluntarioak gara denak, batzuk irakasle ibilitakoak, eta

beste batzuk, berriz, ez". Astean hiru egunetan klaseak ematen hasi ziren, eta gaur egun ia egunero ematen dituzte, astelehenetik ostegunera. "Boluntarioak nahi dutenean etortzen dira, eta horren arabera, haurrak mailaz maila banatzen ditugu. Ordubetez aritzen gara haiekin etortzen diren aldiro", zehaztu du.

Zumetaren esanetan, "haur bati eskolan etxeko lanak jartzen baldin badizkiote eta etxean egiteko aukerarik ez badu, eskolara jada kezkatuta joaten da. Eginda eramatea sekulako lasaitasuna da berarentzat, eta gure laguntzaz egin ditzake. Era berean, euskarari dagokionean batik bat, etorri berria delako, laguntza ematea, berekin hitz egitea eta pixkanaka aurrera nola egiten duen konturatzeara da helburua".

Ikasturte hasieran ikastetxe guztietara joaten dira. "Jada ezagutzen gaituzte, baina hemen gaudela gogorazten diegu. Hortik aurrera,

irakasle bakoitzak bere gelan zerrenda bat egiten du gugana etortzeko beharra luketenean, eta zehazten du zertan lagun diezaiokegun. Ondoren, gurasoek hartzen dute gugana ekartzeko ardura. Ikastetxeak erabakitzen du zein haur datorren Ikaslagunera; gu horretan ez gara sartzen".

Edonor boluntario

Irakasle ohiek ekin zioten Zarauzko Ikaslagun egitasmoari, baina badira irakasle izan ez diren jubilatuak ere, eta baita irakasle ez direnak eta ikasi nahi dutenak, eta ezagutzen ari direnak. "Boluntarioak eskatzen ditugu, gogoia dutenak, eta benetan esan dezaket, esperientzia polita dela. Hasieran egokiena iruditu zitzaigun jubilatuak etortzea laguntzera, baina gaur egun, hori ez da beharrezkoa: magisteritzako ikasleak, jubilatu gabeak... edonor etor daiteke".

Boluntariotzaren itsasoa murgiltzeko gogoz batu zen Itxaso Azkue (Zarautz, 2006) duela urtebete, Ikaslaguneko kideen artean gazteena. "Boluntario izan nahi nuen, eta Internet bidez bila aritu nintzen zer aukerak zeuden herrian. Niri haurrak asko gustatzen zaizkit, eta Ikaslagun egitasmoaren berria irakurri nuen Hitzako albiste batean. Egitasmoa arduradunekin harremanetan jartzeko posta elektronikoa ageri zen han; bertara idatzi nuen galdezka, eta horrela hasi nintzen guztia". Batxilergoko bigarren mailan dabil oraindik Azkue, baina argi dauka magisteritza ikasi nahi duela.

Iaz ekin zion ikaslagun izateri, eta ziur da bizi ari den esperientzia baliagarria izango zaiola. "Ume bati laguntzen egon nintzaion euskararekin, eta oso-oso gustura aritu nintzen". Lan taldean oso giro ona topatu duela nabarmendu du: "Denak laguntzeko prest daude, eta edozer gauza komentatu dezakezu. Esaterako, Marijek kontatu dit Orokietan matematika beste modu batera ematen hasi direla, eta horrela, gauza berriak ikasten ditut".

Boluntario bakoitzak erabakitzen du zer egunetan joango den laguntzera, eta zer maileta-

ko ikasleak hartuko dituen. "Hala, bi lagun artean hartzen ditugu lauzpabost ikasle, edo batek hartzen ditu bizpahiru. Ikaslagunen beste helburua da ahalik eta haur gutxien edukitzea bakoitzak, lan pertsonalizatua egiteko haiekin. Batzuk etxeko lanekin etorriko dira, eta beste batzuk beste behar batzuekin, baina, azken finean, denei modu zuzenen lagundu nahi diegu", azpimarratu du Zumetak.

"Pila bat jaso"

Izandako ikasleak bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak. "Izugarria da kaletik zoazela haurrek eta gurasoek nola agurtzen zaituzten ikustea. Sekulakoa da, esaterako, LH5en izan zenuen norbait DBH4n ongi dabilela jakitea. Horrek zirrara berezia sortzen dizu. Zerbait emango dugu, baina pila bat jasotzen dugu trukean. Hori oso garbi dugu boluntario jendeak", dio, hunkituta, Zumetak. Ikasketetan atzean gera ez daitezen, aurrera egiteko tresnak ematen dizkie Ikaslagunek bertaraten diren haurrei. Hori da, azken finean, egitasmoaren xede nagusia: "Ez dakit beti lortu izan dugun, baina ematen beti ahalegindu gara. Ez daitezela geratu beraien eskolako martxa jarraitu ezinik, horrek asko markatzen baitu geroa".

Une honetan, dozena bat lagun dabil tza boluntario Ikaslagunen, eta beste bi ere espero dituzte epe laburrean. Edonola ere, gogoratu dute hemezortzi zirela egitasmoarekin hasi zirenean, eta kopurua murriztu egin dela. Hori horrela, jendea beraingana batzeko deia egin dute: "Gutxienez, bertaratu, ikusi zer egiten dugun, probatu arratsalde batez, eta animatzen badira, ongietorriak izango dira". Haien esanetan, gero eta beharrezkoagoa da: "Pozik etortzen gara eta pozik joaten gara, eta astean ordubete ez da horrenbeste. Azken finean, bakoitzak eman dezakeena da gakoa". Zarauzko Ikaslagun egitasmoarekin harremanetan jarri nahi duenak marijEZumeta@gmail.com posta elektronikora mezua bidal dezake.

Ikasleek bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak

BOLUNTARIOTZA AISIALDIA BAILITZAN

IMANOL AGIRRE



Boluntariotza zainetan darama Imanol Agirrek (Azpeitia, 1952). Beretzat ez da behar bat, plazera baizik, nahiz eta askorentzat zaila den kontzeptua ulertzea. Filosofia horrekin ekin zion mintzalagun izateari. Duela zortzi urte bilkura zabala deitu zuten Sanjuandegi auzoan, eta Jon Maia ekarri zuten espresuki hitzaldia eskaintzera. "Batzar hartara erdaldun jendea gonbidatu genuen, eta gure helburua izan zen hortik talde batzuk sortzea, lehendik euskara pixka bat menderatzen zuen jendearekin", kontatu du. Egitasmo hark "arrakasta polita" izan zuen, eta "nahiko hunkigarria" izan zela du gogoan. "Hortik sortu zen mintzapraktika taldea".

Bereziki, aspalditik herrira etorritako erdaldunak eta euskaraz zerbait ikasi zutenak animatu ziren: eroso sentituko ziren giroan ikasi nahi zuten euskaraz, gramatikarik gabe eta euskaltegira joan

gabe, hizketaldien bidez. Horiez gain, titulua atera nahi dutenak ere gehitu zaizkie gerora. Hala, maila ezberdinetako bost bat talde elkartzen dira egun, euskaldun berriak euskaldun zahar edo bidelagunekin, tabernaren, kafetegiren edo lokal batean, elkarrekin euskaraz aritzeko.

"Gehienak dira etxean eta inguruan euskara praktikatzeko arazoak dituztenak, baina nahiko maila ona daukatenak. Maila antzekoa dutenak elkarrekin jartzen ditugunez, nahiko erraz egiten dute, eta euskaldun zaharraren papera izaten da katigatzen diren momentuetan laguntzea, giro on bat sortzea eta asteburuan egin dutenaren inguruan solasaldi bat dinamizatzea"; horrela eman du beraien jardunaren berri Agirrek

Azpeitiarra koordinatzaile lanetan aritzen da, eta bere ardura da taldeak osatzea eta jendea animatzea. "Nik neuk ere taldetxo bat eramaten dut, eta iruditzen zait oso ekimen ederra dela. Gustuz egiten dut, eta aisialdi moduan kontsideratzen dut. Ez da zama bat, inolaz ere. Oporretara edo norabait joan behar dugu-nean, beste norbaiten esku uzten dugu taldea, eta ez da arazorik izaten".

Aisialdia bai, baina "besteei euskara irakaste hutsa eragingarri da guretzat". Azpimarra berezia egin du horretan, gainera: "Guretzat pozgarria da jende horrekin solasaldiak egitea euskaraz. Azken finean, gauza polita egiten dugu. Ez da lan bat guretzat, aisialdiko ekintza bat bezala baita, eta gainontzeko ekintza bo-



luntario guztiak ere horrela ulertzen ditut. Ez da derrigorrez egiten duguna, gustu handiz baizik".

Bere iritziz, lan boluntarioak horrela izan beharko luke: "Bakoi-tzak bere militantziarekin edo eman dezakeena emanda, baina gehiago eskatu gabe, eta geure artean harreman ona izanda. Azken finean, ondo pasatzera joaten gara mintzapraktiketako saioetara". Euskaldun berriek ere asko estimatzen dutela nabar-mendu du, elkarrekin denbora tarte eraginkorra partekatzen dutelako. "Horregatik jarraitzen du egitasmoak".

Elkarrekin, batera

Agirreren boluntariora grina ez da horretara mugatzen, Elkar-ekin taldean ere buru-belarri baitabil. Duela hamar bat urte sortu zuten elkarteak, zegoen "egoera prekario eta kritikoaren ondorioz, beharrik gehien zutenei erantzun bat emateko asmoz". "Hasi ginen arropa banatzen, gauzak banatzen, eta, pixkanaka-pixka-naka, bigarren eskuko denda bat bihurtu da. Izatez, bi denda dira: bata arropena, eta bigarrena, materialena", aditzera eman du.

Denda bakoitzean langile bana duten arren, boluntario talde finko bat dute asteroko martxa eramateko, eta gero, 70 lagune-ko talde zabal bat dute, bi hilabetetik behin parte hartzen dute-nak. "Horrela, sei hilabeterako pertsonala bermatuta izaten dugu denda zabalik edukitzeko". Ateratzen duten diruarekin hainbat eratako ekintzak antolatzen dituzte: herriko prekarietateari eta migratzaileen egoerari buruz gizartea kontzientziatzeko, migra-tzaileak euskalduntzeko eta abar.

"Horrez gain, udalak behar gehien duten familien zerrenda pasatzen digu, eta 80 bat familiari arropa ematen diegun doan, udazkenean zein udaberrian. Gainerakoan, gure dendetan euro batera edo bira, edo behintzat oso merke, jartzen ditugu gauzak salgai, eta hortik lortzen duguna gure ekintzak antolatzeko era-biltzen dugu. Konfiantza daukagun elkartasun proiektuetara ere bideratu izan dugu dirua". Orogen gainetik, dendek ongi funtzio-natzearen gakoa "boluntariora lan handiari" dela azpimarratu du. ■

"Ez da lan bat, aisialdiko ekintza baizik; beste ekintza boluntarioak ere hala ulertzen ditugu"

"Hasi ginen arropa eta gauzak banatzen, eta, pixkanaka, bigarren eskuko bi denda eraiki ditugu"

Parlamentuaren itzaletan



NAGORE AIZBITARTE

Ia urtebete daramat atzerrian bizitzen, zehazki Bruselan. Hona lanerako beka batekin iritsi nintzen, hiriak "burbuila europarraren" inguruan irakatsiko zidana espero gabe. Eta bai, burbuila bat da benetan, hiri honetako egunerokotasuna nolakoa den ikusten hasten zaren unean, aurpegian lehertzen zaizun burbuila. Izan ere, hemen, Europako erakunde ospetsuek ustez ezarri beharko luketen ordenak erabateko kaosean bizi den gizartearekin talka egiten du.

Egia esan, Bruselara etorri aurretik, Europako beste hiriburu askorekin gertatzen den bezala, guztiz idealizatur nuen hemengo bizitza. "Estatu aurreratuak" bezala saltzen dizkigute, arratsaldeko 18:30ean afaltzen hasten diren horietakoak. Hizkuntza eta kultura aniztasuna ospatzen duten lekuak, etorkizun hobia ziurtatzeko helmuga ezin hobe bezala saltzen diren horiek.

Ez dut gezurrik esango, hasieratik asko erakarri ninduen modernitatearen eredu nagusi gisa aurkezten den hiri batean bizitzearen ideiak. Lehen esan dudan bezala, baina, hiri hau zapaltzen duzun unean, burbuila europarra zure aurpegian lehertzen da, eta ezinezkoa da hura saihestea.

Hiri honek badu oso alde ilun bat. Hemen "demokrazia" eta "askatasuna" hitzekin egunero jolasean dauden erakunde gorenak lanerako bidean ikusten dituzu. Europako banderak nonahi topatzen dituzun lekua da, beste bandera askori lekuri uzten ez dieten bitartean. "Euro frikiak" izenez ezagutzen diren pertsonekin nahasten zara, euren karrera profesionalen gorenera iristeaz harro dauden pertsonekin, hain zuzen ere. Aldi berean, ordea, badirudi ez dutela onartu nahi sistema osoa bertako bizi mailari aurre egin ezin dien bekarioen lanean sostengatzen dela.

Denak oso lanpetuta dabilta ustezko munduko sistema aurreratu eta ospetsu horren baitan lanean. Hain lanpetuta daude, non ez baitituzte ikusten Europako Parlamentuaren ondoko kalean lo egiten duten familiak. Hitzaldietako eta ekitaldietako ahotsetan oinarritzen dira, kalean zaborrak arakatzen dituzten milaka eskuren soinuei entzungor eginez. Enpresako

**HAIN LANPETUTA
DAUDE, NON EZ
BAITITUZTE IKUSTEN
KALEAN LO EGITEN
DUTEN FAMILIAK**

bileretara eta afarietara iristeko presak ez die uzten kalean droga mendekotasun egoeran daudenei eta laguntzarik ez dutenei begiratzen. Beraiek ere beteko ez dituzten legeak proposatzen dituzten bitartean, ahanzturan erortzen da hiri honetan ematen den segregazioak auzo osoak marjinaziora eta erabateko pobrezian bizitzera eraman dituela.

Bruselako erdigunea *eraztuna* izenez ezagutzen denak inguratzen du, eta eraztun horren barruan, erakunde horietan lan egiten duten pertsona gehienak daude, Europako burbuila horrekin ezkontzeko aukera izan dutenak. Hiri honetan bizi diren pertsona gehienek ez dute eraztun hori urrutitik ikusteko aukerarik ere. Zergatik? Europako Parlamentuak itzal handia proiektatzen duelako hiri honetan. Itzal hori ehuneko txiki batek baino ezin du argitu. Gehienentzat, ordea, ezinezkoa da argi hori piztea, eta itzalpean geratzen dira, etorkizun hobia agindu zien norbait etorri eta argi hori noiz piztuko zain. Ez dakitena da oso gutxi lagundu nahi dietela itzaletik ateratzen, edo hala dirudi behintzat. Zeren, zoritxarrez, oso trebeak baitira ideia honekin jolasten: ikusten ez dena, ez da existitzen. ■

Koh Tao 
 OSAGARRIAK +
 PIERCING ESTUDIOA
 Jose de Artime, 14-20730 AZPEITIA • 629 178 758

LAU 
 NEUMATIKOAK
 PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
 943 053056 Loiole kalea 201, 20730 Azpeitia

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

bertako
 igogailuek | ascensores
 Benetako orotariko zerbitzua
 100€-tik/hileko

**Igogailuen mantentze-lanen
eskaintza zorrotzeta**
 +2.000 bezerok gugan dute konfiantza
 943 903 450 bertako.eus

NON DAGO UZTARRIA?




Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarría pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarría@gmail.com helbide elektronikora azaroaren 16a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Urriko Uztarría aldizkarian Uztarría pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 38. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Marian Garcia bazkidea izan da irabazlea.

 **URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA

"Jakintza guztiak guk uste baino transbertsalagoak dira"

PATXI JUARISTI INGENIARIA ETA ILUSTRATZAILEA

Ingeniaria da lanbidez Patxi Juaristi, baina Ilustrazio Zientifikoan masterra egin du, baita sari bat lortu ere ilustrazio batekin. Bateko zein besteko jakintzak uztartzea atsegin du, eta lotura horrek sorkuntza aberasteko balio duela uste du.

Testua: **Leire Ibar**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Leire Ibar eta utzitakoak**.

Ofizioz ingeniaria bada ere, ikasketa prozesua zabaltzeko hautua egin zuen iaz Patxi Juaristik (Azpeitia, 1985). Horrela, Ilustrazio Zientifikoan masterra gauzatu zuen, itxura batera bere ofizioarekin inongo zerikusirik ez duen adar batera salto eginez. "Betitik gustatu izan zait irudiekin esperimentatzea. Beti izan naiz lardaskatzea gustatu izan zaion pertsona, asko sakondu gabe, baina denetik pixka bat egitea gustatu zaiona". Ikasketa prozesuaren bitartez ohartu da gustukoak dituen bi alor uztartzea lortu duela ilustrazio zientifikoaren bitartez. Ikuspegi oso teknikoak duelako, alde batetik, eta sortzeko ahalmena ematen duelako, bestetik.

Zientziak interes berezia sortu izan dio beti azpeitiarrari. Ilustrazio Zientifikoan masterra gauzatzen ari zen lagun baten bidez eman zuen ikasketa horiek egikaritzen hasteko pausoa. Masterrean, modu analogikoko zein digitaleko

hainbat teknika ezagutu ditu. Gainera, sortutako piezak hainbat esparrutan aplikatu daitezkeela adierazi du Juaristik. Ezagunak diren fauna eta floratik askoz haratago doa masterrean lantzen dena, Juaristik azaldu duenez. Astronomia, arkeologia, biologia, geologia zein paleontologia izan dira azpeitiarrak landu dituen arloetako batzuk. "Esparru pila batean jarduteko aukera izan dut, hori oso dibertigarria izan da niretzat". Ilustrazio zientifiko bat sortzeak aurrez landuko den gai espezifikoaren inguruko dokumentazio lana egitea dakar. "Jakintza prozesuak berak ere jarraitu egiten du ilustrazioaren planteamendua egin ostean. Izan ere, beharrezkoa da adituengana jotzea eta kontsultak egitea". Arkeologian, esaterako, beharrezkoa da arkeologiako lanak nola egin diren jakitea, horren arabera egingo baita birsortzea. "Elkarlana ere ezinbestekoa da, baita bakoitzaren gogoia ere, gaiaren inguruan dokumentatzeko, ikasteko eta gauzak ahalik eta zehatzen egiteko". Gogoko dituen bi aspektuen arteko "erdiko

Patxi





puntu" gisa definitu du Juaristik ilustrazio zientifikoa. "Ez delako marraztea bakarrik, prozesu osoa delako".

"Izugarri" ikasi duela adierazi badu ere, onartu du hasiera batean oso gauza konplexuak iruditzen zitzaizkiola aurkeztutako proiektuak. "Inondik inora ere ez nuen uste hori egiteko gai izango nintzenik, oso galduta ikusten nuen neure burua zenbait aspektutan". Harridura berberaz hartu zuen otsailean Plentziako Itsas Estazioak eta EHUKo Ilustrazio Zientifikoa graduondokoak antolatutako Ilustrazio Zientifikoaren Lehiaketa irabazi izana. Adierazi du lan eta ordu askoren fruitua izan dela lortutakoa. "Masterra egiten hasi nintzenean esan bazidaten saria jasoko nuela, ez nukeen sinetsiko". Izan ere, aurretiaz ilustrazio eta irudien mundutik bazetorren ere –bere buruarentzako zirriborro eta stencilak egitetik–, erronka bat izan da azpeitiarrarentzat klasera joan eta presiopean lan egitea.

Irudia buruan duela egin izan du beti lan Juaristik, eta horri estuki lotuta dago ilustrazio zientifikoaren xedea hain zuzen, datuak erakusteko ahalik eta elementu bisual egokiena lortzea baita helburua. Orokorrean bi multzo nagusitan sailkatzen dira ilustrazio horiek. Batetik, zientziaren barruan kokatzen direnak daude, zientifikotik zientifikora datuak erakusteko egiten diren irudiak. Horiek oso-oso zehatzak izan behar dute eta kode mugatu batzuk bete behar izaten dituzte. Oso metodologia garbia izan behar dute irudi horiek, ikerkuntzarako erabiliko diren irudiak direlako.

Patxi Juaristi

- **Jaioturtea:** 1985.
- **Ikasketak:** Ingeniaritza Industrial eta Ilustrazio Zientifikoan masterra.
- **Lanbidea:** Ingeniaria eta ilustratzailea.
- **Ingeniaria ez banintz...** Lanbide hau eta ilustrazioa uztartuko lituzkeen zerbait egitea gustatuko litzaidake.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Kayakean zein bizikletan ibiltzea, mendi bueltak egitea eta abar.



Hortik behera bestelako abaniko osoa irekitzen da. Bestetik, dibulgaziorako helburua duten irudiak daude. Horietan erakargarritasunak pisu handiagoa hartzen du zehaztasunak baino, nahiz eta transmititzen den horrek ideia faltsurik ezin duen eman.

Idea zehatz bat transmititu behar behar bada ere, pentsatu beharra dago nola transmitituko den. Dibertigarria den buruhaustea dago hor Juaristirentzat. "Stencilak badirudi sormenerako askeagoa dela, gaia librea delako eta ez daukazulako helburu batzuk bete beharrik. Baina, stencilak ere muga batzuk jartzen dizkizu, kalean egiteak edota teknikak berak jartzen dituen mugak. Ilustrazio zientifikoa egiterakoan, zehaztasun horren barruan sormena beste gauza batzuetan islatzen da". Transmititu nahi den ideia zehatza eta zorrotza izan behar den arren, artistak erabaki behar du zein irudi izango den egokiena helarazi nahi den mezu horretarako, baita zein teknika erabili ere.

Digitala ala analogikoa

Teknikei dagokienez, digitalaren presentzia erabatekoa den honetan, Juaristik berak nahiago du eskuz marraztea. Hala eta guztiz, teknika digitala erreminta bat gehiago bezala ulertzen du. Bi tekniken artean saltoka ibili ohi da ilustratzailea, eta paperaren eta ordenagailuaren arteko konbinazioz sortzen ditu lan asko. "Nik erabat bide lineala ikusten nuen hasieran, eta une oro probatzen eta nahasketak egiten joan behar dela ikasi dut".

3D formatuan ere aritu da azpeitiarra. Gaur egun, Araiako gazteluaren aztarnak oinarri harturik, arkeologo talde batekin dabil Juaristi XIII. mendeko eraikina nolakoa ote zen argitzen. Horretarako, eskuz eta xehetasun handiz eginiko irudi orokor bat gauzatzeaz gain, 3Dko bideo batean ere badabil lanean. Bideo horren bitartez, eraikinaren zati ezberdinak ikustea ahalbidetuko dute. Ingeniari lanetan aritu izanaren ondorioz, lengoia horrekin nolabaiteko harremana badauka azpeitiarrak. 3Dak indar handia duela adierazi badu ere, guztia 3D formatuan eta ordenagailuz egitean, eskuzkoaren xarma puntua galdu egiten duela jakinarazi du.

Uztartzea

Ingeniari lanetan dihardu azken hamar urteotan Juaristik, eta ilustratzaile ofizioa berria badu ere, adierazi du sarritan elkarren osagarri izan dituela bi arloetako jakintzak. "Jakintza guztiak guk uste baino transbertsalagoak dira". Askorentzat zerikusirik ez badute ere, nik aurkitzen diet harremana, baten ikasitako gauzak edo metodologiak beste arloetan ere aplikatzen ditut". Ingeniaritza munduan lan egin izan duenean ere ideiak paperarean taxutzeko zuen ohituraz hitz egin du. Ingenieritza eta ilustrazioa, biak uztartzeko gogoia adierazi du azpeitiarrak. Ingenieritza irudiaren behar "dezentea" dagoela esan du, eta hor tarte bat eduki dezakeela zenbait lan egiteko. Ilustrazio zientifikoan sortzen diren bestelako proiektuak ere gogoz hartuko lituzkeela dio. "Nire asmoa hori da, gero ikusiko da ea posible den". ■■■



Margotu

Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta onddoen garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman iezaiozula!



Aldea dago

Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.



Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esatera zahar bat agertuko zaizu. Erabili albako hizki-marrazki alfabetoa.



Handienetik txikienera



Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

Gauza bera da...

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakaitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu abiapuntua. Jakin ezazu azaroari deitzeko moduz ari direla biak.

AIZU, BA
NIRETZAT AZAROA

Z

DA



GURE HITZA
MOTZAGOA DA,
SEI HIZKI DITU:


H

DA



Itzala

Lotu hosto bakaitzari
bere itzala



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



MIEL A. ELUSTONDO

Migratzailearena

Bi aste behar izan nituen Maghniara heltzeko, Aljeria eta Maroko arteko mugara. Han, zain egon behar izan nuen hilabete bat. Maghniatik kanpora ez oso urruti kanpamentutzar handi bat eginda zeukaten, migratzaileentzat. Ez zen leku ederra, eta neure herria utzi izana, Gao, damutu zitzaidan. Zalditik astora egin nuen. Hura infernua! Nahi beste pertsona hil ziren kanpamentu hartan. Gizonezkoek baino ez zuten handik irteteko baimena, janari eta ur bila joateko. Emakumezkook, kanpamentuan ginen beti, giltzapean. Jan eta lo egiten genuen, besterik ez. Ez zen erraza. Gaixo itxurak egiten nituen, niregana gizonik ez arimatzeko. Haurdun nengoen, baina horrek ere ez zidan askorik lagundu. Kanpamentuko gizonek larrua nahi izaten zuten, eta guregana etortzen ziren, nahi zuten orduko. Neskek larrua ukatuz gero, gizonezkoek jo egiten zituzten, edo kutxilloa hartu eta ebakiak egiten zizkieten. Nik, esan dut, gaixo plantak egiten nituen, haurdun, baina ez nintzen fio eta, esate baterako, noizean behin besterik ez nintzen joaten dutxatzera. Entenditzen duzu, ezta? Ez zen halakorik bizitzen nuen lehenengo aldia, ohituta ere

banengoen, baina Maghniaren diferentea zen, ez zegoen handik eskapatzerik, hura migratzaileentzako kartzelatzar handi bat zen, Marokoko muga. 2005ean izan zela uste dut, urtearen hasieran, Europara sartzeko azkeneko oztopoa gainditzeko prest nengoen. Baina han bazen okarren bat. Bidaia luzea egin nuen haraino, baina banekien ni Europara sartzeko dirua pagatzen ari zirenek, lehenbailehen jaso nahi zutela ordaina, eta, horretarako, ni prostituzioan sartzeko nahi zutela, baina nik besterik nahi nuen: Europara heldu, eta eskapatu egingo nintzen, beste behin, neure bizia egin ahal izateko. Prostituzioa. Saiatuta nengoen lehenago ere, eta ez nuen horretarako balio. Azkeneko pausoa emateko garaia etorri zen: Tangerrera joan behar nintzen, tarte batean mendian bizi neure ume jaioberriarekin, han barkua hartu eta Espainiara joan...". ■

**"EZ ZEGOEN
ESKAPATZERIK, HURA
MIGRATZAILEENTZAKO
KARTZELAR
HANDI BAT ZEN"**



SARA AMENABAR

Kolpeak

Bizitzaren kolpeak latzak dira. Zaila egiten zaigu egunerokotasunean daukaguna baloratzea, inguruko pertsonak mirestea eta osasunari benetako balioa ematea. Zeinen onak garen eguraldiarengatik kexatzen, lanera joateko pereza elikatzen, edo zerbait materiala puskatzen zaigunean umore txarra erakusten.

Osasunak bide kontrajarria hartzen duenean, dena aldatzen da. Lehen garrantzitsua zena, lehen buruhausteak ematen zizkiguna, gaur ez da garrantzitsua. Gaixotasunak begiak irekitzen dizkigu. Bat-batean, anbulategira edo ospitalera bueltaka ikusten gara eta ez dugu sinesten.

Beldurra agertzen da. Lasaitasuna botatzen da faltan, lo ondo egitea eta ingurukoekin planak egiteko gogoia berreskuratzea. Zaila da. Gure azalean edo ondokoarenean bizi dezakegu. Lehenago ala beranduago, gaixotasunak edonoren atea jo dezake.

Gaur indarra bidali nahi dizut. Kontrolatu ezin dena aske uzteko, gure esku dagoenari merezi duen espazioa emateko. Zainketa txikiak izango dira garaile. Emaizta ez ezagutu arren, bidean dutzako aztarnak ez dira inoiz ezabatuko. Aurrera, gure pausoak beti izango dira berezi. ■



www.gukazerbitzuak.eus

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu
lanak



Telebista

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

02



Estrategia eta
planifikazioa

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

B

K

eto



UH

nari

ZH



Ganadua gaixo, jabeak larri

GHE Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa Euskal Herrira iritsi da, baita Azpeitira ere. Eltxoek transmititzen dute birusa abelburutik abelburura, eta askotariko sintomak eragiten ditu animaliengan; kasurik larrienetan, hil egiten dira. Oñazko Zelaiaran baserrian, hamabost behi kutsatu zaizkie, eta hiru hil. "Egoera zaila" izaten ari da ganaduzaleentzat, eta laguntza eskatu diete erakundeei.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Argazkiak: **Andoni Elduaen**.



Azken boladan bolo-bolo dabil GHE Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa, hainbat eta hainbat ganaduzaleri kalteak eragiten ari den birusa. Orain gutxi arte nahiko urrun ibili da, Afrikan barrena, baina pixkanaka, inguruotara ere iritsi da: uda sasoian, Andaluzia (Espainia) aldean kutsatu ziren zenbait behi; geroago, Gaztela eta Leon (Espainia) inguruan atzeman zituzten kasu batzuk; eta, orain, Euskal Herrian ere ari da eragiten sarraskia. COVID-19 gaitzarekin parekatzen dute zenbaitek birusa, ganaduaren gaitzak ere buru batetik bestera sintoma ezberdinak eragiten dituelako, sendabiderik ez duelako, eta batez ere, ezjakintasun egoera eragiten ari delako abeltzainen artean. "Egoera zaila izaten ari da, ezezaguna delako, eta gaitza egun batetik bestera sartu zaigulako etxean", adierazi du Eli Eiguren (Oñatz, 1984) Oñazko Zelaiaran baserriko abeltzainak.

Zelaiaran baserrian irailaren 3an hasi ziren beren ganaduak GHE gaitzak kutsatu ote zituen susmoak egiten. "Bat-batean sartu zitzaigun gaitza; ez genekien Gipuzkoan bazenik ere. Espainia aldean bazebilela bai, baina hortik aurrera, arrastorik ez genuen. Egun batetik bestera, behi bat gaixotu zitzaigun, eta hurrengo egunean, beste bat. Balantzaka zebiltzan, deskoordinatuta... Albaitariari deitu genion, eta galdetu genion ea hemen ba al zegoen GHE gaitza. Baietz erantzun zigun, azken egunetan kasu pila bat ari zirela agertzen. Hark baieztatu zigun gure behiek ere gaitz hori zutela. Sekulako sustoa hartu genuen".

Inguruotan gaitzaren kasuak baieztatu zizkioten aurrenetakoak izan ziren Oñazko baserrikoak. Hil egin zitzaizen gaixotu zitzaizen lehen abelburua, eta ordutik, gaitzaren aurkako borrokan murgilduta dabilta. "Lehen astean bi kasu agertu zitzaizkigun, eta bat-batean, beste lau". Horrela, egunez egun. Irail hasieratik urri erdira arte –orduan hitz egin zuen hedabide honek Eigurenekin–, guztira hamabost buru kutsatu zaizkie, eta horietatik hiru hil. Oraindik ere, behi batzuk ukuiluan apartatuta zituzten elkarrizketaren egunean, gainontzekoak ez kutsatzeko. Batzuei begietan nabari zitzaizen ondo ez zeudela, beste batzuei muturrean, bakarren bat hezur eta azal

Eli Eiguren, Oñatz auzoan, limusin arrazako hainbat behiz inguratuta.



Osasuntsu dauden behi bat eta txahalak, larrean.

zegoen... Ganaduak gaixo daude, baina ganaduzaleak ez daude hobeto: "Egunero behi guztiak begiratu behar izaten ditugu, besterik kutsatu ote den jakiteko. Horrela ibili beharrak sortzen duen estresa sekulakoa da. Lo egiteko arazoak ditugu, eta beldurtuta gaude, hurrengo egunean zer panoramarekin topo egingo dugun ez dakigulako", adierazi du Egigurenek. Guztira, berrehun abelburu inguru dituzte Zelaieran baserrian, eta familia bati jaten ematen dion ogibidea da abeltzaintza.

"Katarro txar bat"

Egiguren eta haren etxeak bizitzen ari direna ez da kasu isolatu bat; izan ere, hainbat eta hainbat ganaduzaleri ari zaizkie eragiten sekulako buruko minak GHE gaitza. Hori horrela, gaixotasunaren nondik norakoez hitz egiteko, zenbait bilera egin dituzte Lurgintzaren Azpeitiko egoitzan. Garikoitz Nazabal EHNEko Gipuzkoako presidenteak gidatu ditu saio horiek, eta ondo ezagutzen du zein den gaur egungo egoera. Urola Kostan, GHE gaitza "eragin handia" izaten ari dela nabarmendu du hark. "Urola bailaran kasu asko agertu dira, eta Zarautz alde horretan ere gogor sartu da gaitza", dio. Jendea "desesperatuta eta erreta" dagoela azpimarratu du. "Etxe askotan oso gaizki pasatzen ari dira".

Gaitzaren eraginak azaldu ez ezik, haren inguruko informazio orokorra ere eman du Nazabalek. Batetik, argitu du GHE gaitza birus bat dela, kutsakorra, eta bektore batzuk behar dituela transmititzeko: eltxoak, hain zuzen ere. "Behitik behira ez da kutsatzen, intsektuek egiten dute bektore lana", adierazi du. Hau da, kutsatuta dagoen abelburu bat ziztatzan badu intsektuak, eta ondoren beste bat, bigarren buru hori kutsatu egiten da. Bestetik, azpimarratu du, gaitza birus batek eragiten duenez, ez dagoela hori zuzenean sendatuko duen botikarik: "Pertsona batek anginak harrapatzen dituen bezala da. Birikoa baldin bada, ez daukazu ezer egiterik; pasatu arte itxaron". Zer egiten ari dira, baina, egoeraren aurrean ganaduzaleak? "Kutsatutako animaliak apartatu eta behi guztiei kasu egin, ez daukazu besterik egiterik", esan du Nazabalek. Prebentziorako ere ez dago erremedio magikorik, Egigurenek adierazi duenez: "Intsektuak hil izan ditugu, ingurua desinfektatuta, eltxoak animalienengan joan ez daitezen eta ez daitezen behi gehiago kutsatu. Baina hori ere ez da segurua: nahiz eta intsektuak hil, posible da behi hori aurrez kutsatuta egotea".

Argi diote gaitzaren eraginak larriak direla ganaduzaleek, baina zein dira eragiten dituen sintomak? Nazabalek azaldu duenez, birusaren eraginez, animalien defentsek "sekulako jipoia" hartzen dute, eta bigarren mailako afekzio batzuk sor daitezke: "Matrila gogortzen zaie, sudur mintzak lehortzen zaizkie, mingaina puztu (horrek min ematen die, eta ahoan

zauriak egiten zaizkie), hankak gogortuta gelditzen dira, balantzaka, eta batez ere, jateari eta edateari uzten diote, ahoko zaurien eraginez". Gaitzaren ezaugarri nagusia da, hain zuzen ere, sintomak askotarikoak izan daitezkeela eta oso ezberdinak animalia batetik bestera: "Abortuak ikusi ditugu, ondo jaio eta gero hiltzen diren txekorrak... Oso gorabeheratsua da intzidentzia". Hori horrela, askotan tratamendua bigarren mailako afekzio horiek arintzeko egiten dela nabarmendu du Nazabalek: "Normalean, tratamendua ez da egiten birusaren kontra, baizik eta bigarren mailako eragin horiei aurre egiteko". Antibiotikoak eta antiinflamatorioak ematen dizkiete gaixo dauden animaliei, oro har.

"Katarro txar bat" bezala definitu du gaitza Egigurenek. "Gure behiei mingaina loditu zaie, errapeko azala erori –txahalari esnea emateari uzten diote min hartzten dutelako–, muturrean zarakarra egin zaie, arnasa hartu ezinda gelditu dira, sukarra izan dute, begietako konjuntibitisa... Kasurik larrienean, ahoko minagatik jateari eta edateari utzi diote; beste batzuen kasuan, organoei eragin die gaitzak, gibelari, ultzerak ere sortu zaizkie...". Egigurenen arabera, animalia batetik bestera hain sintoma "ezberdinak" izanda, asmatzea ere ez da erraza. "Bat hiru eguneko tratamenduarekin sendatuko da, beste bati hamar egunez eman beharko diozu... Animaliek hitz egiten ez dutenez, egunero gauean egon behar da ezinbestean".

Gaitzak oreinei eta behiei eragiten die batez ere. Hasieran uste zuten behi jakin batzuk bakarrik kutsatzen zirela, baina hori ez dela horrela dio Nazabalek. "Bizirik dauden denak jotzen ditu: handiak, txikiak, amarekin errapean dauden txekorrak... Denetarik ikusi dugu". Beste gauza bat ere argitu nahi izan du Nazabalek. Harategietan bezeroak gaitzaren inguruan galdezka ari direla eta, GHE birusak elikagaietan ez duela eraginik azpimarratu du. "Haragiari ez dio inolako kalterik eragiten, baina sektoreari kalte handiak eragiten dizkio".

"Enpatia gutxi"

Gaitzak berak eragiten duen ondoeza ez ezik, babes falta sentitzen dute ganaduzaleek. "Enpatia gutxi sentitu dugu erakundeen aldetik", dio Egigurenek. "Ez dira etxean zer daukagun ikustera etorri, eta ez dute neurririk hartu", dio. Baserritarrek "gezurretan" ari balira bezala tratatzen dituztela sentitu du Oñazkoak. "Antibiotikoa ematen badiegu behiei, goitik esaten digute ez emateko gehiegi. Aldiro albaitaria ekarri behar dugu etxera, hark esan behar digulako zenbat botika eman, eta bisita bakoitza ordaindu behar diogu hari. Esaten digute kalte ordaina emango digutela hildako behi bakoitzagatik, baina frogatu egin behar dugu gaitzak eraginda hil dela, eta hil aurretik jakinarazi egin behar diegu gaixo dagoela. Eta gure hitzak ez du balio, ez garelako albaitariak", salatu du bizi duten egoera Egigurenek. Ahal dutena egiten ari direla erantsi du: "Dirua gastatzen ari gara botikak, pentsua, bitaminak, probiotikoak... erosten. Ahal duguna egiten ari gara gaixo dauden behiek iraun dezaten".

Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza batzuk emango dituela iragarri du orain gutxi. Nazabalek adierazi duenez, "aldatuz" doa erakundearen planteamendua. "Tatamendua %100 lagunduko zutela esaten zuten hasieran. Gero, kanpotik bueltan jakin genuen behiko hoge euro izango zirela: antiinflamatorioa bost egunetan, albaitariaren bisita sartu gabe. Planteamendua aldatzen ari dira bilerak batetik bestera, eta ez dute gurekin adostu", nabarmendu du Gipuzkoako EHNEko presidentek. Horren aurrean, aldundiarekin izan dituzten bileretara beren proposamena

**GAITZA ERAGIN HANDIA
IZATEN ARI DA UROLA
BAILARAN; "ETXE
ASKOTAN OSO GAIZKI
PASATZEN ARI DIRA"**

**GAITZAK ERAGITEN
DUEN ONDOEZA EZ
EZIK, BABES FALTA
SENTITZEN DUTE
GANADUZALEEK**



Gaixorik dauden behiak apartatuta, ukuiluan. Begietan eta matrailetan nabari zaie eritasuna.

eraman dute, baina hori zehaztea ez dela eginkizun erraza azpimarratu du Nazabalek: "Kaltearen tamaina zehazterakoan, akabatutako behi kopurua da neurtzen errazena, baina animalia asko ukituta gelditzen dira, abortuak ikusten ari gara, jaio eta akabatzen diren txekorrak... Idiskoetan antzutasuna eragiten omen du gaitzak, eta hori nola neurtzen da? Nola ordaindu kalte horiek? Kasu horiek neurtzea askoz ere zailagoa da". Balio batzuen araberrako planteamendua egin zuen Gipuzkoako EHNEk, baina Nazabalek aitortu du halako planteamendu bat egitean ez dela erraza denekin asmatzea. Hala eta guztiz ere, arazo nagusia beste bat dela dio: "Betiko arazoa dago: urte bukaera da eta aurrekontua falta da".

Eta kalte materialak ez ezik, birusa ganaduzaleen buru osasunean eragiten ari den larritasunak ere aipatu ditu: "Hau guztia sekulako tentsioa eragiten ari da, eta enpatia pixka bat daukanak hori baloratu egin beharko luke. Egunean bi edo hiru aldiz behi guztiak erreparasatzen dabiltza, aldiko kutsatu berriren bat azalduko den beldurrez eta tartean azalduz, eta jendeari horrek ezinbizia eta inpotentzia eragiten dio, ez daukalako praktikan ezer egiterik. Hor badago neurtzen hain erraza ez den beste faktore bat". Egoera "kontrolaezina" dela nabarmendu du Nazabalek. "Hori da agian frustragarria, azalpena bilatu nahi eta ezina".

Beste kolperik?

Eguraldia freskatzen hasten denean egoera hobetuko den esperantza du Egigurenek, eltxoak gutxituko direlako, baina ez da hain baikorra, hurrengo urtean ere berotuko duelako. "Hori ez da konponbidea. Ez dakigu datorren urterako inmunizatuta egongo diren gaitza pasatu duten behiak. Aurtengoa pasatuko da, baina gure kezka da, COVID-19arekin gertatu bezala, berriro agertuko ote den, beste kolperik izango al den". Nazabalek teoriak zer dioen adierazi du: "Teoriak esaten du, behin gaitza pasatuta, antigorputz maila handi bat garatzen duela behiak, baina ez daukagu inolako ziurtasunik".

Nazabalek argi adierazi du sektoreak "benetako krisi bat" bizi duela. "Honek sekulako triskantza ekarriko du. Bertatik soldata atera behar duenarentzako sekulako kolpea da, baina dozena bat behi dauzkanarentzako ere bai: jende pila batek erabakiko du proiektua haizea hartzera bidaltzea. Lehen ere nahikoa kokoteraino eginda daude, lanean eta dirua galduz ari direlako, eta jende horrek esango du: 'Akabo'". Sektoreak duen garrantzia aitortu behar dela eta neurriak hartu behar direla uste du Nazabalek, urgentziaz.

Larritasunaren tamaina zenbatekoa den adierazteko, konparaketa bat egin du hark: "Aldundikoei zera esan nien bilera batean: 'Urumeak gainezka egingo balu, eta Donostian sekulako uholdeak eta txikizioak izango balira, inor ez litzateke txikikerietan hasiko'. Inork ez luke esango: 'Behiko 20 euro emango dizkizut'. Diru partida handiak jarriko liriteke egoerari aurre egiteko. Eta gurekin, zer pasatzen da? Ganaduzaleona ez al da sektore estrategiko bat, geure-geurea eta ezinbestekoa? Herri honetan ezer behar baldin bada, jan egin beharko da, ezta?'". ■■■

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

ERLO
GUKA

HD

**Bereizmen handian
eta kalitate onenean
emititzen hasi gara.**

**Bilatu ErloGUKA HD
kanala zure telebistan!**

